Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN SAILA

1299

384/2009 EBAZPENA, urtarrilaren 11koa, Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearena, José Ignacio Fraile Esteban jaunari esleitutako San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak errebokatzen dituena (Bilboko Eskualdea, Bizkaiko Osasun Barrutia).

Osakidetzako Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentearen martxoaren 7ko 289/2001 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaizkion José Ignacio Fraile Esteban jaunari Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilboko Eskualdeko San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Gerentziako Zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– José Ignacio Fraile Esteban jaunari esleitutako Bizkaiko Osasun Barrutiko Bilboko Eskualdeko San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburuaren funtzioak errebokatzea, berak hala eskatu duelako.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2009ko urtarrilaren 11tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Osasun Laguntzako Zuzendaritzari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Deialdiko 8. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2009ko urtarrilaren 11.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

1299

RESOLUCIÓN 384/2009, de 11 de enero, del Director Gerente de Comarca Bilbao, por la que se revoca la asignación de funciones de D. José Ignacio Fraile Esteban como Jefe de Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala, Comarca Bilbao, Área de Salud de Bizkaia.

Mediante Resolución 289/2001, de 7 de marzo, del Director Gerente de la Comarca Bilbao de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se asignaron las funciones de Jefe de Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala, de Comarca Bilbao, Área de Salud de Bizkaia, a D. José Ignacio Fraile Esteban.

Vista la Ley 8/1997, de 26 de junio, el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre y demás disposiciones de pertinente aplicación, esta Dirección Gerencia,

RESUELVE:

Primero.– Revocar, a petición propia, la asignación de funciones de D. José Ignacio Fraile Esteban como Jefe de Unidad de Atención Primaria de San Adrián-Zabala, Comarca Bilbao, Área de Salud de Bizkaia.

Segundo.– La presente Resolución tendrá efectos a 11 de enero de 2009.

Tercero.– Notificar la presente Resolución al interesado y a la Dirección de Asistencia Sanitaria.

Cuarto.– Ordenar su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinto.– Con arreglo a lo establecido en la base 8 de la convocatoria, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Bilbao, a 11 de enero de 2009.

El Director Gerente de la Comarca Bilbao,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.